



ELÍAS
QUEREJETA
ZINE
ESKOLA



EU ←
ES
EN

Etengabeko
prestakuntzako
masterrak:

Artxibo
Zinematografikoa
eta ikus-entzunezkoa

Komisariotza
Zinematografikoa
eta ikus-entzunezkoa

Sorkuntza
Zinematografikoa
eta ikus-entzunezkoa

2024/ 2025 Ikastur- tearen gida

1. Eredu pedagogikoa
2. Denentzako eskola
3. Arduraz eta konpromisoz
beteriko espazioa
4. Zirkulartasuna
5. Edukien mapa
6. Erritmoak eta errituak
7. Denbora eta dedikazioa
8. Ikerkuntza mapa
9. Ikasleen bukaerako
proiektuak
10. Entregatzeko epeak
11. Ebaluazioa
12. Praktika profesionalen
programa
13. Eskubide intelektualak
14. Marka erabiltzeko
betebeharra
15. Eskolako artxiboa
16. Zinemaren etxea
17. Unibertsitateko kideak
18. Taldea
19. Zuzendaritza akademikoa

Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE) ikerketako, pentsamenduko eta zinematografiako nazioarteko zentro bat da. EQZE gauzatzen da bere kontzeptualizazioa eragiten ari diren hiru eragileen ezagutza arloetatik abiatuta; hiru erakundeok dira: Euskadiko Filmategia, Tabakaleraren kultur proiektua, eta Donostia Zinemaldia (SSIFF). Eskolan parte hartzen duten erakundeak ez dira irakaskuntza erakundeak, erakunde zinematografikoak baizik. Horrela jaio zen, beraz, pedagogia proiektu forma hartu duen ideia zinematografikoa.

Zinema tradizioaren eta historiaren ikuskera genealogiko eta zirkularra eta ikuspuntu akademiko berezia duelako, EQZE "zinemaren hiru aldien eskola" da.

1. Eredu pedagogikoa

Elias Querejeta Zine Eskolaren irakaskuntza proiektuaren oinarrian pedagogia dinamika bikoitza dago. Batetik, ikasle bakoitzari mapa akademiko aberats bezain aldakorra eskaintzen dio, aukera anitzekoa. Hala, ikasleek egonaldian zehar egiten duten bidea guztiz pertsonala, propioa eta bereizgarria izan dadin ahalbidetzen da. Bestalde, EQZEek etengabe bultzatzen du ikaslearen erantzukizun soziala eta haren zeregina zentroaren bitzitza komunitarioaren eraketan.

2. Denentzako eskola

EQZE ikasteko, arriskatzeko eta bilaketa intelektualerako gune aske eta babestua da. Denon ardura da espazio hau mantentzea eta zaintzea. Horretarako, errespetatu egin behar dira lanerako eta bizikidetzarako ezarritako arauak; eztabaidan kritikoki eta modu eraikitzailean parte hartzeko ezarritakoak; epe eta jarraibide akademikoentzakoak, eta puntualtasunari zein ekipamendu teknikoaren erabilera egokiari eta zaintzari dagozkienak ere.

EQZE komunitatea eratzen duten pertsonak eskubidea dute aukera berdintasunerako eta tratu errespetutsua eta duina jasotzeko. Espazio bat sortu eta mantendu nahi da, pertsonen aniztasuna errespetatu eta berdintasunezko harremanak sustatzen dituena. Horregatik, EQZEek protokolo bat dauka, hezkuntza komunitatean gerta litezkeen jazarpen eta bazterkeria egoerak prebenitu eta horiei erantzuteko.

3. Arduraz eta konpromisoz beteriko espazioa

EQZEren finantzazioa publikoa da. Hortik eratortzen da, hain zuzen, komunitate hau osatzen dugun pertsona guztiok gure gain hartzen dugun erantzukizun soziala eta politikoa. Konpromiso hori ez da ideal abstratu bat; haatik, eskolaren eguneroko jardueran zehazten da.

Eskola da ideiak partekatzeko, besteekin elkartzeko eta egunerokotasunean proiektua eraikitzen joateko espazioa. Lanean oinarritutako filosofia horretan, asistentzia (ikasgelan, tailerrean, laborategian, ikasketan) nahitaezkoa eta beharrezkoa da, ikaskideei eta, oro har, gizarteari zor diogun errespetuari lotuta egoteaz gainera.

4. Zirkulartasuna

Hiru ibilbideetako bakoitzak (Artxiboa, Komisariotza, Sorkuntza) hamabost hilabeteko iraupena du. Era berean, denbora hori modu zirkularrean egituratzen da, EQZEK bultzatutako ikaskuntza eta esperientzia «ez-linealaren» filosofiari erantzunez. Hala, EQZE bizipen proiektua da, akademikoa denaz askoz harago iristen dena; horregatik daukate bere programazioak eta jarduerak ere hedatzeko joera.



Azaroak 11 - Urtarrilak 6

2

Zinemaren historiak eta poetikak

Filmikoan sakondu

Komisariotza artistikoa eta filmikoa

Avant Garden, Irudia eta bere mutazioak

9 → 19 Abendua 2024/2025

Abenduak 9 - 20
HIPOTEASIAK
2023/2024

3

Zinemaren historiak eta poetikak

Urtarrilak 7 - Martxoak 9

Piktorretik pixelera.
Material filmikoaren transformazioak

Komisariotza laborategia

Sorkuntza en metodologiak

AKELARRE II
Otsailak 24 - Martxoak 4

4

Zinemaren historiak eta poetikak

Martxoak 10 - Apirilak 27

Narratibak

Zinema ikusizko arteen testuinguruan

Lerrotik pixelera. Bideoa eta euskarri magnetikoak

5

Zinemaren historiak eta poetikak

Apirilak 28 - Abuztuak 17

Zinefabrika. Ogibidea eta ekoizpen kreatiboa

Curating the future

Etorkizun digitala eta artxiobaren denborak.

6

Zinemagilearen lantergi-estudioen

Abuztuak 18 - Abenduak 31

Hipótesis



SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Irailak 16 - Azaroak 10

16 Iraila
Ikasturtearen irekiera

2024-2025 Ikasturtea

Ikusmira Berriak

Ikusmira Berriak

Ikerkuntza Proiektuak: C3. Lerrokatu gabeko zinema-artxiobak / Zinebi Gordailua. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren funts zinematografikoari buruzko ikerketa / Objektu arrotzak. Zuzeneko Zinemagintzaren Latinoamerrikako Ikerketa eta Prestakuntza Zentroko talleren artxiobak / Zine aurrea eta abarregia eskukoak / latente dauden aldaerak / Bigarren eskukoak. Berreabilerak eta desbideratzeak zinemagintza iberoamerikarrean.

5. Edukien mapa

Plan Akademikoaren edukiak, funtsean, kategoria hauetan banatzen dira:

Enborrekoak	Enborreko ikasgaiak pentsamendu zinematografikoaren eta zinemaren historiaren sarrera orokorra egiten dute, eta eskolaren pentsaera zinematografikoaren bizkarrezurra osatzen dute. Ikasgai horiek derrigorrezkoak dira eta ebaluatu egiten dira.								
Espezialitatea	Espezialitateetako ikasgaietan departamentu bakoitzari dagozkion jakintza espezifikokoak lantzen dira. Ahalegina egiten da murgilketa progresiboa izan dadin, ibilbide bakoitzaren gai propioei dagokienez. Espezialitateetako ikasgaiak derrigorrezkoak dira, eta alor espezifikoko ikasleen lana ebaluatzen da.								
Zeharkakoak	EQZEN hedapenerako bide ematen dutenak zeharkako ikasgaiak dira. Hortxe aurkitzen du ikasleak bere bokazioa, edo ezagutzarako bide anitzenak ditu urratzen. Behin izen ematea berretsita, bertaratzea derrigorrezkoa da. Ikasgai hauek lau jakintza arlotan banatzen dira: <table border="0"> <tr> <td>MATERIALTASUNA</td> <td>Epigrafe honetan biltzen dira zinemaren materialtasunari buruzko prestakuntza eta ikasketa proposamenak.</td> </tr> <tr> <td>FILM IN SPACE</td> <td>Atal honen bitartez aparatu filmikoaren osagaiak aztertzen dira: haren hedapen eta eztabaidatzea; eta pantailaren alderdi espositiboa.</td> </tr> <tr> <td>POETIKA</td> <td>Alderdi humanistikoaren eta pentsamenduaren edukiontzia da, teoria estetikoaren eta politikoaren gordailua. Orobat, eskola beste arte batzuetara zeharka iristen da bertan.</td> </tr> <tr> <td>TÉCHNE</td> <td>Ikasgai hauen xedea da ikasleek zenbait teknologia erabiltzeko dauzkaten prestakuntza premiak betetzea.</td> </tr> </table>	MATERIALTASUNA	Epigrafe honetan biltzen dira zinemaren materialtasunari buruzko prestakuntza eta ikasketa proposamenak.	FILM IN SPACE	Atal honen bitartez aparatu filmikoaren osagaiak aztertzen dira: haren hedapen eta eztabaidatzea; eta pantailaren alderdi espositiboa.	POETIKA	Alderdi humanistikoaren eta pentsamenduaren edukiontzia da, teoria estetikoaren eta politikoaren gordailua. Orobat, eskola beste arte batzuetara zeharka iristen da bertan.	TÉCHNE	Ikasgai hauen xedea da ikasleek zenbait teknologia erabiltzeko dauzkaten prestakuntza premiak betetzea.
MATERIALTASUNA	Epigrafe honetan biltzen dira zinemaren materialtasunari buruzko prestakuntza eta ikasketa proposamenak.								
FILM IN SPACE	Atal honen bitartez aparatu filmikoaren osagaiak aztertzen dira: haren hedapen eta eztabaidatzea; eta pantailaren alderdi espositiboa.								
POETIKA	Alderdi humanistikoaren eta pentsamenduaren edukiontzia da, teoria estetikoaren eta politikoaren gordailua. Orobat, eskola beste arte batzuetara zeharka iristen da bertan.								
TÉCHNE	Ikasgai hauen xedea da ikasleek zenbait teknologia erabiltzeko dauzkaten prestakuntza premiak betetzea.								
Denbora bankua	Ikasle komunitateko kideek prestatu eta ematen dituzten edukiak dira, ikasle komunitatearentzat berarentzat. EQZERA iritsi baino lehen eskuratutako jakintzak partekatzea da xedea, espezializatuak izan ala ez.								
Egonaldiak	Horrela deritzo zinemagile, ikerlari edo profesional batek iraupen aldakorra izan dezakeen EQZEN eginiko egonaldi baten ondorioz sortzen den taldeko edo pertsonen arteko transmisioari. Egonaldi horretan, norbere proiektuan lan egiteaz gain, eskolak ematen dituzte.								

6. Erritmoak eta errituak

Ikasturtea sei moduluren inguruan antolatzen da, eta haien iraupena aldakorra da. Lehenengo bost moduluak (irailtik uztaiera) irakaskuntzakoak dira, eta presentzialak. Seigarren moduluak (abuztua-abendua), master amaierako lanari edo hipotesiari dagokiona, erdi presentziala da.

Modulu bakoitza unitarioa da, berariazko koherentzia pedagogikoa du eta ziklikoki errepikatzen den barne egiturari jarraitzen dio: enborreko ikasgaiak ematen dira lehenik, gero espezialitate bakoitzari dagozkionak eta zeharkakoak.

EQZEn jarduera akademikoa zinemagileen benetako komunitate baten sorrerarekin osatzen da eta, batzuetan, sorrera horrek baldintzatzen du; izan ere, hamabost hilabetean, zinemagileen komunitate horrek jakintza eta esplorazio filmikoen esperientzia partekatzen baitu. Komunitate-asteek edo Akelarreek, EQZEn glosarioaren barruan, komunitateari buruzko ideia hori gorpuzten dute. Irakaskuntza presentzialeko aldian, aste horiek lehen, hirugarren eta bosgarren moduluaren amaieran ematen dira, modu arautuan. Akelarreek azken lanen garapena eta jarraipena markatzen dute. Gainera, une egokia da ere ikasketa planen bilakaera berrikusi eta espezialitateen artean elkartrukeak sortzeko.

I. Akelarrea	2024ko urriak 28 – azaroak 8
2023-2024 promozioaren hipotesiak	2024ko abenduak 9 – 20
II. Akelarrea	2025eko otsailak 24 – martxoak 7
III. Akelarrea	2025eko ekainak 9 – 20

Hipotesiak

Hipotesiak EQZE eskolako amaierako ekitaldia dira; abenduan izaten dira eta ikasleek beraien "zinemaren hipotesiak" aurkezten dituzte jendurrean, hots: amaierako lanak edo, -bukatu ez baldin badituzte- sortzen ari diren proiektu horiei eman diezaieketen ikusgaitasun publikoa edo behin-behineko gauzatzea.

2024-2025 promozioaren Hipotesiak.	2025eko ko abenduak 9 – 19
---	----------------------------

7. Denbora eta dedikazioa

EQZEren proposamen pedagogikoak, arlo akademikoa eta profesionala ez ezik, arlo esperientziala ere biltzen du. EQZErena zinemari eskaintzeko eta horretan murgiltzeko aparteko denbora bat da, arlo akademikoa gainditzen duena; hori dela eta, nekez ezar daitezke ikasleei eskatzen dien dedikazioari buruzko arauak. Edonola ere, hurrengo taulan, master bakoitzaren kredituen (ECTS) eta haren eskola denboraren baliokidetasun bat ezartzen da, Europako unibertsitate estandarren arabera.

Ikasgaiak	Kredituak ECTS
Formakuntzaren oinarrizko edukiak	45
Master amaierako lana	15
Curriculumetik kanpoko praktikak	> 100 ordu

Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioaren (EGHE) irizpideei jarraikiz, 60 ECTS balio dute EQZEK eskaintzen dituen berezko hiru tituluek. Irakas-kuntza presentzialeko bost moduluek 45 ECTS kreditu osatzen dituzte. Sei-garren modulua erdi presentziala da eta master amaierako lana gauzatzea du xede; 15 ECTS kreditu balio ditu. Ibilbide pertsonalak osatzeari dagokionez, ikasketa plana malgua da. Honako taula honetan adierazten dira, gutxi gorabehera, eskola orduen oinarrizko osagaiak:

Kategoria	Modulua	Ikasgaia	Hizk.	ECTS
Enborrekoak	1	Historia y estéticas del cine vasco	ES	1,5
	2-4	El arte de las aberraciones. Conceptos de estética y teoría del cine	ES	4

Kategoria	Modulua	Ikasgaia	Hizk.	ECTS
Artxiboa	1	Arqueología de los medios	ES	1,5
	1-2	On the Materiality of Audio-Visual Heritage	EN	1,5
	1-2	La imagen fotoquímica. Laboratorio 16 mm (I & II)	ES	4
	1-4	Filosofía y ética en la preservación del cine	ES	2
	2	Documentación y catalogación	ES	1,5
	2	Identificación técnica de materiales fílmicos	ES	2,5
	2-5	Identification and preservation of digital files	EN	3
	3	Preservación cinematográfica y sus alternativas	ES	3,5
	3	Tratamientos digitales de la imagen I: Digitalización	ES	1,5
	3	Tratamientos digitales de la imagen II: Diamant	ES	3
	3	Tratamientos digitales de la imagen III: Da Vinci	ES	3
	4	Identificación y digitalización de materiales de vídeo	ES	3
	4	Residencia Fernando Martín Peña	ES	1,5
	5	Gestión de colecciones de archivos audiovisuales	ES	1,5
	5	Historia del sonido para su restauración	EN	1,5
Komisariotza	1-2	La otra cámara del cine	ES	1,5
	1-2	Las culturas de la pantalla	ES	2
	1-5	La hipótesis de un cine	ES	10
	1, 3, 4	Film/Video Exhibition Histories and Practices (I & II)	EN	5
	2-4	El buen amor. Escritura y cine	ES	4
	3	Film Festival Studies	EN	1,5
	4-5	Pensamiento y práctica curatorial. Arte contemporáneo y cine	ES	4
	5	La forma que piensa. Introducción al Vídeo-ensayo	ES	3
5	Zinefabrika. Desarrollo de proyectos curatoriales	ES	2	
Sorkuntza	1	Proyecto 0. Aproximación a la captación de la imagen	ES	1,5
	1-2	La imagen fotoquímica. Laboratorio 16 mm (I & II)	ES	4
	1-4	Avant-Garden. El film y el arte del jardín	ES	10
	2,4,5	Contra la página en blanco. Otros acercamientos a la creación cinematográfica	ES	6
	3-5	Metodologías de la creación	EN	3,5
	4	Estudio de un lugar	ES	4
	5	Zinefabrika. Desarrollo de proyectos cinematográficos	ES	4

Kategoria	Modulua	Ikasgaia	Hizk.	ECTS
Zeharkakoak	1-2	Observatorio de la escucha	ES	2
	1-2	Sonido de campo, montaje y mezcla. Registro, elaboración y transmisión	ES	1,5
	1-3	Puntos de partida	ES	2,5
	3	Cámara oscura	ES	1,5
	3	Reveladora Vostok	ES	1
	3	The Art of Primitive Emulsions	EN	1,5
	4	Contactos: cine, vídeo y arte en el panorama vasco	ES	1,5
	4	Interpreting and conserving complex media artworks	EN	2
	4	Zinebotanika	ES	1,5
	5	On/Off performance	ES	2,5
	5	Mise en scène and Beyond	EN	1,5
	5	Tinting and toning	EN	1,5
	5	EQZELab. Laboratorio fílmico profesional	ES	3
	5	El mapa de los (tres) archivos	ES	1,5

8. Ikerkuntza mapa

EQZEK bere burua zinemari buruzko ikerkuntza prozesu baten emaitzatzat dauka. Ikerkuntza prozesu horren ondorioek eskola forma hartu dute. Hazi horretatik eratorri dira, hain zuzen, zentroaren baitan sortu diren ikerkuntza baliabide guztiak (ikerkuntza proiektu eta ekintzak, mintegiak, argitalpenak...), bertatik elikatzen dira jarduketa guztiak -pedagogikoak, intelektualak eta sorkuntzazkoak-, eta hari lotuta daude ekintza estrategiko guztiak.

Beren interesei eta jakin-minei erantzunez, ikasleek ikerketa taldeetako batean sartzeko aukera dute. Era berean, parte hartzen ari diren ikerketa proiektutik beren amaierako lana egin edo laburbildu dezakete.

C3.

Lerrokatu gabeko zinema-artxiboak

Zinebi Gordailua.

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren
Nazioarteko Jaialdiaren funts zinematografikoari
buruzko ikerketa

Lotura duten erakundeak:
Zinebi, Euskadiko Filmategia

Objektu arrotzak.

Zuzeneko Zinemagintzaren Latinoamerikako
Ikerketa eta Prestakuntza Zentroaren ikus-
entzunezko tailerren artxiboak

Lotura duten erakundeak:
Medialab Tabakalera, Ateliers Varan

Zine aurrea eta abangoardia eskopikoak.

Itzalpeko aleak

Lotura duten erakundeak:
Gordailua, Euskadiko Filmategia, Photomuseum

Bigarren eskukoak.

Berrerabilera eta desbideratzeak zinemagintza
iberoamerikarrea

Lotura duten erakundeak:
FilMOTECA Española, Cinemateca Cubana

9. Ikasleen bukaerako proiektuak

Ikasturtean zehar, hiru espezialitateetako ikasleek proiektu bat garatu behar dute, izan norberaren ekimenez sortua, izan eskolako Ikerkuntza Departamentuak lantzen dituen ikerketa ildoetako batetik sortutakoa. Proiektu guztiek izaten dute tutore bat prozesuan zehar laguntzen duena.

Amaierako lan edo proiektuen tipologia honako hau da:

- a. Lan akademikoa
- b. Zaintza eta kontserbazio plana
- c. Programazio lana
- d. Sorkuntza lana

Eskolak ikerketa baliabideen katalogo bat du, eta bertako gaietatik abiatu dezakete ikasleek amaierako proiektua. Katalogo horrek erraztu egiten du balio handiko materialetarako sarbidea, baita nazioarteko erakunde zinematografikoekin eta akademikoekin lankidetzan aritzeko aukera ere. Ikasleek askatasuna dute beren hurbilketak definitzeko tarteko diren erakundeekin eta eskolarekin adostuta.

Funtsa	Lotura duten erakundeak
Trigueros Mori Artxiboa	Artxibo pertsonala
Marisa González Artxiboa	Artxibo pertsonala
Artxiboa (Donostiako Zinemaldia)	Donostia Zinemaldia, Elías Querejeta Zine Eskola
Centre Audiovisuel Simone de Beauvoir	Centre Audiovisuel Simone de Beauvoir (Frantzia)
Cinenova	Cinenova, LUX London (Erresuma Batua)
Dwoskino	University of Reading (Erresuma Batua)
Filmoteca de Catalunya	Filmoteca de Catalunya
Filmoteca Valenciana – Institut Valencià de Cultura	Filmoteca Valenciana – Institut Valencià de Cultura
Red de Cine Doméstico	Memorias Celuloides, La Cinematográfica, Filmoteca Valenciana – Institut Valencià de Cultura, Filmoteca de Andalucía, Filmoteca Canaria, Proxecto Socheo, Unitat d'Investigació del Cinema URV, Rollos de Familia, Guadalajara: Objetivo tus recuerdos, Día Internacional del cine y vídeo doméstico de Salamanca, Minichaplin
Z-A / Zinemagileen Artxibategia	Elías Querejeta Zine Eskola, Medialab Tabakalera

10. Egutegi akademikoa eta entregatzeko epeak

Prozesuen garrantzia baloratzen duen EQZEren lan sistema ireki eta dinamikokoaren konplexutasun handiak entregatzeko epeak zorrotzasunez betetzea eskatzen du. Datak hurrengo taulan jasota daude. Ez da aurreikusten epeak luzatzea.

Entregak Jaieguna

Iraila

2024

1
2 3 4 5 6 7 8
9 10 11 12 13 14 15
16 17 18 19 20 21 22
23 24 25 26 27 28 29
30

16 → 19	2024-2025 Ikasturtearen irekiera
20 → 28	SSIFF 72

Urria

1 2 3 4 5 6
7 8 9 10 11 12 13
14 15 16 17 18 19 20
21 22 23 24 25 26 27
28 29 30 31

7	Komisariotza SSIFF	Zinemaldiaren txostena
23	I. Akelarrea	Entrega
28 → 8 Az	I. Akelarrea Saio komunitarioak	

Azaroa

1 2 3
4 5 6 7 8 9 10
11 12 13 14 15 16 17
18 19 20 21 22 23 24
25 26 27 28 29 30

10	Komisariotza El buen amor. Escritura y cine	Aurretzeko ariketa
25	Artxiboa On the Materiality of Audio-Visual Heritage	Formatu zaharkitu baten posterra

Abendua

1
2 3 4 5 6 7 8
9 10 11 12 13 14 15
16 17 18 19 20 21 22
23 24 25 26 27 28 29
30 31

9 → 20	2023-2024 IKASTURTEAREN HIPOTESIAK
21 → 31	Opor itxiera

1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31

Urtarrila

2025

1 → 6	Opor itxiera	
10	Komisariotza Las culturas de la pantalla	(Hautazkoa)
17	Komisariotza El buen amor. Escritura y cine	1. Entrega Kritikaria, teorikoa eta saiakeragilea
27	Komisariotza La hipótesis de un cine	1. Entrega Proposamen osoa

Otsaila

1 2
3 4 5 6 7 8 9
10 11 12 13 14 15 16
17 18 19 20 21 22 23
24 25 26 27 28

12	Akelarre II	Entrega
24 → 7 Mar	Akelarre II Saio komunitarioak	

Martxoa

1 2
3 4 5 6 7 8 9
10 11 12 13 14 15 16
17 18 19 20 21 22 23
24 25 26 27 28 29 30

21	Artxiboa identificación y gestión de materiales de vídeo	1. Entrega Ekoizpen prozesuen elkarrizketa
21	Komisariotza El buen amor. Escritura y cine	2. Entrega Argitaratzearen ekitaldia
24	Artxiboa Dossier obras en soporte fotoquímico	1. Entrega Fitxa katalogafikoa 2. Entrega Ikuste-fitxa 3. Entrega Ikuskapen teknikoaren fitxa
24	Komisariotza La hipótesis de un cine	2. Entrega Denboraldiaren programazioa

1 2 3 4 5 6
 7 8 9 10 11 12 13
 14 15 16 17 18 19 20
 21 22 23 24 25 26 27
 28 29 30

Apirila

2025

11	Creación Avant-Garden. El film y el arte del jardín	Ikus-entzunezko pieza amaitua, WIP edo gidoia
12 → 27	Opor itxiera	
28	Komisariotza Film/Video Exhibition Histories and Practices I & II	(Hautazkoa)

Maiatza

1 2 3 4
 5 6 7 8 9 10 11
 12 13 14 15 16 17 18
 19 20 21 22 23 24 25
 26 27 28 29 30 31

2	Zeharkakoa Interpreting and conserving complex media artworks	1. Entrega Aurreiazko txostena
5	Artxiboa Dossier obras en soporte magnético	1. Entrega Fitxa katalogafikoa
9	Artxiboa Gestión de colecciones de archivos audiovisuales	Zaintza plana
19	Artxiboa Preservación cinematográfica y sus alternativas	Txosten laburra + elementu digitalizatua
19	Komisariotza La hipótesis de un cine	3. Entrega Programa publikoa
21	Komisariotza La forma que piensa. Introducción al Vídeo-ensayo	1. Entrega WIP artxiboa
26	Artxiboa Identificación y gestión de materiales de vídeo	2. Entrega Bildumaren inbentarioa
26	Zeharkakoa Interpreting and conserving complex media artworks	2. Entrega Amaierako txostena
28	Akelarre III	Entrega
30	Komisariotza La forma que piensa. Introducción al Vídeo-ensayo	2. Entrega Azken bertsioa

1
 2 3 4 5 6 7 8
 9 10 11 12 13 14 15
 16 17 18 19 20 21 22
 23 24 25 26 27 28 29
 30

Ekaina

2025

6	Artxiboa Dossier obras en soporte magnético	2. Entrega Digitalizazio eta postprodukzio artxiboak eta txostena
9 → 20	Akelarre III Saio komunitarioak	
30	Artxiboa Dossier obras en soporte fotoquímico	4. Entrega / (hautazkoa) Digitalizazio eta postprodukzio artxiboak eta txostena

1 2 3 4 5 6
 7 8 9 10 11 12 13
 14 15 16 17 18 19 20
 21 22 23 24 25 26 27
 28 29 30 31

Uztaila

14	Artxiboa Dossier obras en soporte fotoquímico	Txosten osoa
	Artxiboa Dossier obras en soporte magnético	Txosten osoa
14	Komisariotza La hipótesis de un cine	4. Entrega Liburu zuria
19 → 31	Opor itxiera	

1 2 3
 4 5 6 7 8 9 10
 11 12 13 14 15 16 17
 18 19 20 21 22 23 24
 25 26 27 28 29 30 31

Abuztua

1 → 17	Opor itxiera	
--------	--------------	--

1 2 3 4 5 6 7
 8 9 10 11 12 13 14
 15 16 17 18 19 20 21
 22 23 24 25 26 27 28
 29 30

Iraila

2025

15 → 18	2025-2026 Ikasturtearen irekiera	
19 → 27	SSIFF 73	
8	Hipotesiak	1. Entrega Fitxa teknikoak

Urria

1 2 3 4 5
 6 7 8 9 10 11 12
 13 14 15 16 17 18 19
 20 21 22 23 24 25 26
 27 28 29 30 31

Azaroa

1 2
 3 4 5 6 7 8 9
 10 11 12 13 14 15 16
 17 18 19 20 21 22 23
 24 25 26 27 28 29 30

3	Hipotesiak	2. Entrega Lan idatziaren zirriborroa
17	Hipotesiak	3. Entrega Lan idatzia
24	Hipotesiak	4. Entrega Proiektziarako artxiboak (Hala badagokio)

Abendua

1 2 3 4 5 6 7
 8 9 10 11 12 13 14
 15 16 17 18 19 20 21
 22 23 24 25 26 27 28
 29 30 31

9 → 19	2024-2025 IKASTURTEAREN HIPOTESIAK
--------	---

Otsaila

2026

9	Hipotesiak	5. Entrega Lan idatzia aldatetekin (Hala badagokio)
---	-------------------	---

11. Ebaluazioa

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ematen duen Berezko Titulua lortzeko, titulu horren ikasketa eta jarduera akademikoak gaintitu behar dira, dagokion ebaluazio prozesuaren bitartez.

Kalifikazioa honako hauetako bat izango da: GAI, EZ GAI edo EZ AURKEZTUA; eta esleitutako kreditu guztiei dagokie (60 ECTS). Bertaratze hutsagatik ez da, inolaz ere, Titulua lortuko. Ikasleek kalifikazioa berrikusteko eskaera egiteko eskubidea dute.

Hona hemen ebaluazio irizpideak:

Irakaskuntza (1-5 Moduluak)		
Irizpide akademikoak → 50%	Bestelako faktoreak → 50%	
Ikasgaiak (ariketak, hala dagokionean) → 50%	Klaseetara joatea eta puntuafatasuna → 30%	Parte-hartzea eta ekimena → 20%
Amaierako lana (6 Moduluak)		
Akademikoak eta profesionalak → 60%	Bestelako faktoreak → 40%	
Hipotesiak: amaierako proiektua, ikerketa proiektuekin lotutako proiektua (ikerketako produktibitatea edo produktibitate profesionala)	Motibazioa, jarrera, talde-lana eta abar	

12. Praktika profesionalen programa

Curriculumetik kanpoko praktiken programak ikasleak benetako proiektuetan inplikatzeko aukera ematen du. Proiektu horiek esperimantazio-laborategi gisa funtzionatzen dute, eta, aldi berean, beren sare profesionala zabaltzeko eta lan-aukerak bultzatzeko aukera ematen die. Horrela, EQZeko ikasleek gutxienez 100 orduko praktika profesionalak egin ahal izango dituzte ikasturtean zehar hainbat erakundetan, proiektua babesten dutenekin hasita, Donostia Zinemaldia (SSIFF), Euskadiko Filmategia eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, eta EQZerekin lankidetzatza-hitzarmenak dituzten beste erakunde batzuetara hedatuz. Erakunde horien artean daude: Cinemateca Portuguesa (Portugal), Pompidou Zentrua (Frantzia), LightCone banatzailea (Frantzia), Courtisane jaialdia (Belgika), Cinegrell zaharberritze digitalaz arduratzen den enpresa (Alemania, Suitza), Jean Vigo Institutua (Frantzia) eta Artium Museoa (Espainia).

Praktikak curriculumetik kanpokoak eta borondatezkoak dira, ez daude ikasketa planaren barnean, eta ez dute ECTS kredituen baliokidetasunik. Praktikaldiak orokorrean ekainetik abendura bitarte izaten dira.

13. Eskubide intelektualak

Elías Querejeta Zine Eskolaren ustez, eskolaren testuinguruan egindako lan guztien jabetza intelektualak egile intelektualena da; alegia, ikasleena, irakasleena, ikertzaileena eta EQZEN parte hartzen duen beste edozein profesionalena, eta ez dauka zer ikusirik eskolarekin izandako loturaren iraupenarekin.

14. Marka erabiltzeko betebeharra

Ikasleek EQZE marka txertatzeko betebeharra dute beraien lanetan, izan puntualak zein amaierakoak, obra mota edozein dela ere (pelikulak, zaharberitzeak, argitalpenak, saiakerak, ikus-entzunezkoen instalazioak...). Hala, esplizituki argi geratuko da zentroaren testuinguruan eta hango giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak erabiliz egin dela.

Gainera, dimentsio publikoa hartzen baldin badute, EQZE marka txertatu beharko da obrari dagozkion euskarri fisiko eta digital guztietan; hala nola, posterretan eta karteletan, postaletan, *flyerretan*, promoziorako materialean, etab. Orobat, programen, zikloen eta festibalen euskarrietan (katalogoetan, eskuorrietan, web orrietan...) ere txertatu beharko da, baldin eta aukera hori badago. Posible ez den kasuetan, informazio hori idatziz aipatuko da sinopsian edo jardueraren deskribapenean eta/edo fitxa teknikoan.

Arau horrek eragiten die garapenean dauden bakarkako edo taldekako lanei eta amaierako lanei, baina baita EQZEN egiten diren bestelako edozein jarduerari ere. Obraren produkzioan kanpoko beste produktore edo agenteren bat sartzeak ez du salbuesten konpromiso hori betetzeaz.

Elías Querejeta Zine Eskola marka erabiltzeko aukera zentroko jardueren baitan garatu eta egindako proiektu eta produkzioena baino ez da. Beste moduren batean erabili baino lehen EQZEn baimena beharko da.

Kasu horietan guztietan, marka artistikoki erakusten denean barne, zentroaren logo ofiziala erreproduzitu beharko da EQZEn web orrian jaisteko eskuragarri dauden artxibo originaletatik. Web orrian dago, halaber, erakunde nortasunaren eskuliburua.

15. Eskolako artxiboa

Ikasleek egindako lanen material guztia eta amaierako lanak (eskolan egon bitartean amaitu edo ez) eskolako gordailu digital eta/edo fisikoan utzi behar dituzte. Eskolaren memoria zaindu eta aberastea bertako protagonisten lana da, hots, ikasleena.

16. Zinemaren etxea

«Zinemaren etxea» esaten dugunean, EQZE kide den Tabakaleraren ekosistema zinematografikoari buruz ari gara. Espazio horrek eskaintzen dituen prestazio batzuk honako hauek dira:

Laborategiak

Biltegia

Biltegia eskolako zinema, bideo eta soinu ekipamendua gordetzen eta zaintzen duen departamentua da. Hortik kudeatzen da EQZEren gainerako laborategien eta ekipoen erabilera. EQZEko kide guztiak eskolako instalazio eta ekipo guztiak erabiltzeko eskubidea dute, oinarritzko erreserba protokoloari jarraituta eta horien erabilera jarduera akademikoari lotuta dagoenean betiere. Horrez gain, ekipoen erabilerari buruzko prestakuntza espezifikoa osatuta eduki behar dute, eta bertaratzeari eta oinarritzko konpromisoari buruzko eskolako araudia bete behar dute.

Arreta emateko eta ekipamenduen erreserba egiteko ordutegia honako hau da: asteartetik ostegunera, 15:30etatik 17:30etara. Erreserba gutxienez bi egun lehenago egin behar da.

Laborategia 1 / Laborategia 2

Laborategi fotokimikoek badute behar den ekipamendu teknikoa film materiala ikuskatzeko, berreskuratzeko, zaintzeko, errebelatzeko (eskuz edo profesionalki), zuzentzeko eta editatzeko.

Espazio horren hornidura teknikoa Debie errebelatzeko bi trenak, Bell & Howell kontaktu-kopiagailu batek (16 mm) eta Filmlab Systems International Colormaster kopia positiboen etalonajerako kolore-analizatzaile batek osatzen dute.

Ikuskapena

Ikuskapena material fotokimikoa eta magnetikoa identifikatu, berrikusi eta garbitzeko gela da. Harilkatzeko banakako mahaiak eta kopiak eta negatiboak ikuskatzeko eta aztertzeko tresnak ditu, baita juntagailuak, soinu-sinkronizagailuak, formatu txikiko mobiolak, hezetzeko kamera eta laborategiko kanpaia erauzgailua ere, infektatutako materialetarako.

Digitalizazioa

Digitalizazio gelak filmak digitalizatzeko bi eskaner ditu (Filmfabriek eskanerra, 16 mm, 9,5 mm eta 8 mm-koa, eta Cintel eskanerra, 35 mm eta 16 mmkoa), formatu magnetikoen erreproduzitzaileak, hala nola VHS, Betacam, U-matic, DVCam, Hi8..., multinorma ekipamenduak (NTSC eta PAL), audio erreproduzitzaileak (CD, DAT, biniloa, kasetea).

Lantegia

Hiru espezialitateek eskuzko lanak egiteko eremu balioaniztuna eta egokitzalea da: plato txiki bat, kineskopatze-gela bat, proiektzio-atelier bat, animazio-estudio bat edo lan performatiborako agertoki bat bihur daiteke.

Postprodukzio estudioak

Postprodukzioa

Postprodukzioa irudia eta soinua editatu eta zuzentzeko gela da eta zazpi lan espazio ditu, zuzentzeko eta zaharberritzeko softwarearekin hornituak, esaterako DIAMANT-Film Restoration, Davinci Resolve, Protools eta Adobe Creative Suite programa paketea, baita kode irekiko sistemak ere. Wacom tableta grafikoak eta DaVinci Resolve Micro Panel panel kromatikoa ere baditu espazio honek.

Ikus-entzuneko laborategia (Tabakalera)

Hitzartutako erreserba prozedurei jarraikiz, EQZEko ikasleek Tabakalerako ikus-entzuneko laborategia erabil dezakete. Laborategiak honako gune hauek ditu: coworking espazio bat eta edizio, kolore zuzenketa, proiektzio eta ikustatze gelak..

Proiektzio espazioak

EQZE zinema

EQZEren ekipamendu berriak eskolaren zentro fisiko eta kontzeptuala hartzen du. Elkarren ondoan dauden bi espaziok osatzen dute (areto zuri bat eta areto beltz bat), eta 207 metro koadro ditu guztira. Bi espazio horiek zinema-emanaldietarako pentsatuta daude, edozein ezaugarri teknikotan: bai modu tradizionalan, areto ilunean, bai erakusketa-moduan, galerian. Zehazki, zinema-aretoak 89 lagunentzako edukiera du, eta kabinak 35 mm, 16 mm eta DCP proiektoreak ditu, baita kamera anitzeko streaming bidezko emisio-sistema bat ere. Kabinak proiektzio-laborategiaren funtzioak betetzen ditu, eta bere dimentsioengatik eta ekipamenduagatik tailerrak emateko eta ikasleen eguneroko jardunerako pentsatuta dago.

Zinea 1. aretoa

42 m²-ko pantaila eta 229 eserleku ditu 1. aretoak, eta proiektzioak beste jarduera batzuekin bateragarri egiteko aukera ematen du. Ikasleak doan joan daitezke Tabakalerako jendaurreko zinema emanaldi guztietara.

Zinea 2. aretoa

Euskadiko Filmmategiak 46 eserlekuko zinema aretoa dauka.

Liburutegiak eta artxiboak

Medialab Tabakalera

EQZEren mediateka da Medialab, eta bertan gordetzen dira eskolako funtsak eta bildumak. Liburutegiko bildumak 30.000 liburu, film, katalogo, aldizkari espezializatu... baino gehiago ditu. Sorkuntzaren hainbat esparrutan oinarritutako bilduma, ikasleen eskura.

Euskadiko Filmmategiaren Dokumentu Funtsa eta Liburutegia

Euskadiko Filmmategiaren liburutegiko funts bibliografikoak 7.000 ale baino gehiago ditu. Honako hauek osatzen dute bilduma: erreferentziatzko obrak (hiztegiak, entziklopediak, urtekariak...); zinemagileei eta zinematografiaren

munduko gainerako profesionalei buruzko monografiak; saiakerak; eskuliburuak eta hainbat zinema aldizkari.

Artxiboa

2018az geroztik, Donostia Zinemaldia, EQZErekin batera, lanean ari da bere artxibo historikoa kontserbatu, ikertu eta eskuragarri jartzeko.

Artxiboa.sansebastianfestival.com/eu/ atarian zinemaldiaren historia arakatu, egindako ikerketak kontsultatu, bilduma digitalak esploratu eta artxiboaren katalogoa kontsultatu ahal izango dituzu, baita artxiboko materialarekin lan egiteko zure bisita prestatu ere.

Kutxa Fundazioa Fototeka

Fototeka argazki bildumak milioi bat argazki baino gehiago ditu. Bildumak XX. mendeko Gipuzkoako politikaren, gizartearen eta kulturaren historia erakusten du. Horrez gain, argazkigintzaren historia ere ageri da bertan, eta XIX. mendeko hasieretatik aurrera bereziki garrantzitsuak izan diren lanak biltzen ditu.

Koldo Mitxelena Kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea Gipuzkoako Foru Aldundiaren liburutegia da. Jakintza arlo guztiak biltzen ditu liburutegi honek, eta giza zientzietara eta euskal kulturara bideratua da bereziki.

EHU-UPVko liburutegia

Carlos Santamaria Zentroan dago Campuseko Liburutegia, baita beste baliabide eta zerbitzu batzuk ere (ikasteko gelak, hizkuntzen laborategia, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabideen tailerra), EQZEko ikasleek sarbidea dute Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegi honetara eta gainerako liburutegietara.

Azterketa eta ikerketarako eremuak

Ikerkuntza

Ikerkuntza ikertzaileentzako lan eta bilera gela da. Donostiako Zinemaldiko Artxiboaren eta Euskadiko Filmategiaren kontserbazio-biltegietatik gertu, ikerketa-komunitatearentzako kontzentrazio- eta azterketa-espazio bat eskaintzen du, INek, ikerketa-taldeetako ikasleek eta egonaldietan dauden ikertzaileek osatua.

Sortzaileen gunea

Tabakalerak, artea sortzeko zentroa den aldetik, produkzioan laguntzeko eta espazioak lagatzeko programa bat eskaintzen du; artistei, sortzaileei eta kultura eragileei laguntzeko. Programa honen helburu nagusia da arte eta sorkuntza prozesuetan laguntzea, prozesu teknikoetan zein kontzeptualetan.

Medialab Tabakalera

Medialabek sorkuntza txoko batzuk jartzen ditu ikasleen eskura, gaikako eta teknologiako hainbat arlotan lan egin ahal izateko beharrezkoak diren tresna guztiekin.


Patioa

Espazio garbi eta estalia da, 620 m²-koa, eta erabateko malgutasuna eskaintzen du bertan era guztietako jarduerak egiteko.

Z aretoa

Erabilera anitzeko gunea da, guztiz hornitua, eta era askotako jarduerak egin daitezke bertan, hala nola hitzaldiak, prentsurrekoak, aurkezpenak, topaketak...

Espazioen kokapena



17. Unibertsitateko kideak

EQZE Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako zentro bat da, 2019az geroztik. Unibertsitateko txartelak Donostiako Campusaren prestazioak, online baliabideak, ikasleei laguntzeko plataformak eta kultura eta kirol ekipamenduak erabiltzeko aukera ematen du.

18. Taldea

Carlos Muguiro Altuna
Zuzendaritza akademikoa / carlos@zine-eskola.eus

Arrate Velasco Delgado
Gerentzia / arrate@zine-eskola.eus

Arantza Santesteban Pérez
Ikasketa burutza / arantza@zine-eskola.eus

Uxue Arzelus Lasa
Koordinazio akademikoa / uxue@zine-eskola.eus

Carolina Cappa
Ikerkuntza sailaren koordinazioa / carolina@zine-eskola.eus

Iurre Telleria Goia
Administrazioa / iurre@zine-eskola.eus

Asier Armental Lemos
Arlo teknikoa / asier@zine-eskola.eus

Cristina Neira i Aparicio
Laguntza teknikoa / cris@zine-eskola.eus

Naroa Sancho Amundarain
Produkzioa / naroa@zine-eskola.eus

Felipe M. Retamal Silva
Komunikazioa / felipe@zine-eskola.eus

Clara Sánchez-Dehesa
Artxiboko koordinazioa / clara@zine-eskola.eus

Ricardo Matos Cabo
Komisariotzako koordinazioa / ricardo@zine-eskola.eus

Matías Piñeiro
Sorkuntzako koordinazioa / matias@zine-eskola.eus


19. Zuzendaritza akademikoa

Carlos Muguiro Altuna (Elías Querejeta Zine Eskola)

Joxean Fernández Gutiérrez (Euskadiko Filmmategia)

Clara Montero Tellechea (Tabakalera ICC)

Maialen Beloki Berasategui (Donostiako Zinemaldia)





Erakunde hauen parte-hartzearekin



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival



Erakunde honen babesarekin



**Elías Querejeta
Zine Eskola**

Andre Zigarrogileen Plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián

T. (+34) 943 545 005
info@zine-eskola.eus

zine-eskola.eus